

Ondarribiako gizon urdinak

Bidasoa, 1980.

Abadie gazteluaren atzean lertzen hasia den egunsentiak bost gizon aurkituko ditu Butron ibiltokian zutik, eskuak galtza-patriketan, katalejoen antzera luzatu dituzten txapel azpitik. Tunbiyen aurreko hiru, lau... bost apar-gurpil xuri ilunpean kontatzen.

Hor markatzen bait du itsasoak bere humorea.

Luze-argala da bat, hiru lirain, eta mozketa biribila bestea.

Herriak erditzea suertatzen direnetakoak.

Egunsentiak Hondarribiako hibai ertzean biltzen dituen gizon urdinak ezin dira denak begiz ikusi, ez dira erretratatu daitezkeenetakoak, ez dira postaletan ateratzen.

Usario bat dira.

Herri baten oihal urdin, usatu eta nekatuak higituz doazela litsak berez botatzen dituen lege beraz errenditzen ditu herri honek bere gizon-hari hoiek; gizon urdin hoiengorputz-trokoak itsasora begira dagozela ikusterakoan izpiritu hau sumatzea ez duenak ez du deus ikusten.

Itsuak berak ba du bixta hobea.

Hiru gizon haundi hoietatik sudur luzeena duenak begi t'erdi galdak erre dizkio itsasoan; gutimen horrek jarri du orain anparo bila; bere belaunak pretilaren kontra dauzka; belauniko dagoela dirudi. Asoaldidanik datorkio zutik eta belauniko batera egote hori; zortzireun urte bada motrikoarrek balea ehiztatu, hil eta kaieratu zutenaren berri hementxe bertan jaso zuela; baina pretil honen ordezt Magadalenako hondartza soil bat besterik ez zen hau garai hartan, eta oinak hondarretan zituen. Egia esan, orduan ez zuen gaurko anparo beraren beharrik. Belaun hoiek ongi urindatuak zeuzkan. Hondarribiako talajeruak Atalaian egin zuen suaz jakin zen bezain laster hondarribiarrak berea harrapatu zuten garai hartan, eta egiteko honen oroimenez jarri zuen Hondarribiako udaletxeak zigilu batean balea 1295an, erretratu bat balitz bezala.

Herriko harmarrian geratu da harrezkero.

Gero, bale asko ehizatu ondoren, urrundu egin zen; Terranova Groenlandia eta Soitzber-eraino, eta haraino joan behar izandu zuten haren bila; eta bat-batean, eta talajeruak ahastuta zeundala ustegabeen Hondarribiako uretara etorri zen bat, galduta edo memoria zaharrak honera bultzata, 1805ean, eta hauxe izan zen hemengo uretan bertan hondarribitarrek ehizatu zute balea.

Ba da 174 urte.

Baina ez uste izan hemengo arrantzalea arrain haundiz bakarrik bizi izan dela¹.

Gipuzkoako korrejidoreak XVI. gizaldian ur hoietako arrantzaz galdezka ibili zenean, hala erantzun omen zion hemengo arrantzale batek: neguan, legatza itsasaingido kongrioa, bixigua, toila eta mielka arrantzatzen da gehien, eta udan, sardiña, antxua eta bixigua antzeko lamotea (breca), eta legatz batzuk ere bai.

¹ Balea arraintzat jota diogu hau; balea, egiteko arraina ez bada ere, odol beroko zetazeo bat baizik.

Itsaso haundian, kordel eta amu bidez, eta gertuagoko uretan, sare eta amuekin.

Garai hontan, 1599an, bixiguak zortzi erreal egiten zuen dozenarako, eta mila sardiñak, hamar-hamabost erreal.

Nafarrora freskoa bialtzen zen, eta Gaztelara, kontserban.

Geroztik, prezioak eta arrantza egiteko ohituerak aldatu dira, eta gaur egun hondarribiarrak hegaluzea edo zimarroia, eta hegalaburra eta atuna, ditu berezkoenak; lehen kazea, malote eta kazarra bidez arrantzatzen zena, eta gaur batez ere beita biziaz arrapatzen dena: hegalaburra ekarrarazteko, antxua eta sardiña txikia (parrotza) erabiltzen da, eta hegaluzea arrapatzeko, berriz, berdela, makaela eta txitxarroa.

Hondarribiako gizon urdinak gizaldiak pasa dituzte arrantza bide hoiek eta arrainen joan-etorrien zikloak, igeribideak, ikasten: sardiña eta antxua Lapurdiko itsasertzetik bera datoz, mendebalderuntz; hegalaburra eta hegaluzea, aitzitik, mendebaldetik erdialdera dijoa.

Eta arrantz-lekuak markatzen ikasi zuen aspaldi: legatzarentzat. Barrengo Kantala, Hondarribiatik 3 mila Ipar-Ekialderuntz. Amaiau, distantzia berdinean; Erdikomia, Ondarribiatik 43 mila Ipar-Mendebalderuntz.

Lan hoiek ez ditu gure herriko arrantzaleak eskolan ikasi.

Hala balitz!

Aiton-aita- seme bide neketsu eta luzez egindako lana izan da hau.

Garai batean arraunaren nekea eta ekaitzaren beldurra ziren prezioa; eta gaur, motorrak eta erratiak arrantzaleari laguntza eskeintzera etorri zaizkionean, itsasoari berari hasi zaizkie mugak jartzen.

Alanbradak itsasoan!

Gaur oraindik itsasora begira dagoen Ondarribiako eta Euskadi osoko arrantzaleak ezin du sinetsi.

Batetik, askatasuna eraikitzen ari diren erakundeen burrunba munduan zehar, herriartekotasuna, internazionalismoa, eta hildo beretik baletor bezala, lekuz-lekuko eta eguneroko trabak ugaltzen. Batek gizonari lurrean enbaso egiten dieten mugak kentzeko kinakal nonnahi, eta bestetik itsaso zabal eta mugagabeen alanbrada berriak inauguratzen.

Atzoko itsus bera dago gaur hori dena ikusten.

Eta itsua ez dago bakarrik.

Usarioak gorde duen txanda berriko bostak, bost gizon urdinak, ez daude bakarrik.

Gaur Butron ibiltokian egun sentiaren zain daudenen buru, bihotz eta eskuetan bizi dira hainbeste urtetan tradizioa eta herri arnas hau gaur arte erakarri dutenak, guztiak; eta gaurko haurrak ere hemen dira, arnas horren segida eske, gaurko besoei faltako zaioten indarren ordezeko bezala.

Hoiiek izango dituzte lanak arintzeko behar dituzten untzi hobeak eta tresna berriagoak.

Herri bat ezin bait da kolpetik joan.

Hemen egunsenti hontan argiaren zain dauden bost gizon urdin hoiek lekuko.